# Betetzen

## Espainiako Gobernuaren kontu-emate txostena

Abendua 2021

**Euskadi**

ESPAINIAKO
GOBERNUA

GOBIERNO DE ESPAÑA

*BETETZEN Kontu-emate txostena EUSKADI*

*2021eko Abendua*

## Estatu mailako konpromisoen betetzearen balantzea

- Gobernuak 1.481 konpromiso hartu ditu, eta horietatik iada % 42,7 bete ditu. Aurreikuspenen arabera, 2022ko lehen seihilekoan % 48,3ra iritsiko da.
- Betetako konpromisoak eta gaur egun lantzen ari direnak batuz gero, ia konpromiso guztiak aktibatuta daude, iada konpromiso guztien % 97,1ean kokatuz.
- Legegintzaldiaren erdialde teorikoan, presidenteak Gorte Nagusietan solemnitatez hartutako konpromisoen % 50,2 bete da.
- 1.481 konpromisoetatik 428 PSOEk eta Unidas Podemosek sinatutako akordiotik datoz, iada horietatik % 44,4 bete direlarik.
- Abenduaren 31n, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako konpromisoen % 27,5 bete dira, eta 2022ko ekainean kopuru hori % 32,9ra iritsiko dela aurreikusten da.
- Orain arte, 10 konpromiso bakarrik gainbeheratu dira, guztizkoaren % 0,7.

Taula. Estatu mailako betetzearen balantzea.

| Konpromiso-iturria [konpromiso-kopurua] | Aben-21erako betetako Konpromisoak | Ekain- 22rako beteko diren konpromisoen aurreikuspena |
|---|---|---|
| **Orokorra** [1481] | 42,7% | 48,3% |
| Inbestidura-itzaldia [239] | 50,2% | 58,6% |
| Koalizio Aurrerakoiaren Akordioa PSOE-UP [428] | 44,4% | 51,2% |
| Inbestidurarako beste akordio batzuk [161] | 41,6% | 43,5% |
| PRTRrekin lotutako konpromisoak [316] | 27,5% | 32,9% |

| | | |
|---|---|---|
| Adierazpen eta deklarazio publikoak<br>[715] | 48,3% | 54,7% |

## COVID-19ak eragindako larrialdi ekonomiko, sozial eta sanitarioarekin lotutako jarduera nagusiak Euskadin

### Aparteko baliabideak eta funtsak

Euskadik jaso ditu:

— **644,5 milioi** euro erkidegoei eta hiri autonomoei zuzendutako **aparteko funts**etik, COVID-19aren krisiak eskualdeetako finantzetan dituen ondorioak arintzeko helburuarekin

— **10 milioi euro Egileri, pandemiak kaltetutako enpresentzako euskarri- eta birkapitalizazio-funtsetik.**

### Langileei eta enpresei laguntza

— 2020ko apiriletik 2021eko azarora, hilean batez beste 208.409 euskal herritar baliatu dira ERTE direlakoen luzapenaz (636,6 milioi euro).

—  335,1 milioi euro bideratu dira langile autonomo eta autonomoen aparteko prestazioetarako, pandemia hasi zenetik beren jarduerari eragin baitiote. Horietako 2.105 autonomo laguntza horien hedapenaz baliatu dira.

—  1.863 euskal hartzailek 2,2 milioi euroko aparteko sorospena jaso dute, langabezia- prestazioa lehen alarma egoeran agortu baitzuten; hau da; 2020ko abendutik 2021eko azarora arte.

—  Aldizkako kontratu finkoa duten 703 euskal herritar baliatu dira 2020ko apiriletik 2021eko azarora arte kolektibo horrentzat ezarritako aparteko neurriez, 3,9 milioi euroko zenbatekoaz.

— **622 enpresek 365,5 milioi euroko KOI abalak lortu dituzte urtarriletik; beraz, dagoeneko 6.779,6 milioi euro bideratu dira 19.156 euskal enpresei abala ematera KOI COVID-19 linearen bidez.**

— **218,0 milioi euro bideratu ziren urteko lehen seihilekoan pandemiak gehien kaltetutako sektore ekonomikoetako langile autonomoentzako eta enpresentzako zuzeneko laguntzetara.**

— Urteko lehen seihilekoan, 46,6 milioi euroko aparteko laguntza eman zitzaien krisiaren ondorioz diru-sarrerak murriztu dituzten Erkidegoko toki-erakundeen titulartasuneko garraio publikoko zerbitzua ematen duten operadoreei.

## Osaun-materiala eta ezohiko jarduerak

— **COVID-19aren aurkako 4.191.320 txerto eman zaizkio autonomia-erkidegoari 2020ko abenduaren 27an Txertaketa Plana hasi zenetik**

— **2.717.500 milioi maskara kirurgiko eman zaizkie Euskadiko gizarte-erakundeei, euskal populazio kaltebereneko kolektiboentzat**

# Espainiako Gobernuaren ekimen nagusiak Euskadin

## Next Generation Europako funtsak. Eraldaketa eta Erresilientzia Berreskuratzeko Plana

Abenduaren 14ra arte, 468,0 milioi euro esleitu zaizkio Euskadiri Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren inbertsioak hedatzeko bere eskumen-eremuetan: etxebizitza, mugikortasun jasangarria, berriztagarrien sustapena, ekosistemen zaharberritzea, eraikin publikoen berrikuntza, hezkuntza eta lanbide-heziketa, gizarteratzea eta gizarte-zerbitzuak, besteak beste.

## Ekonomia dinamizatzea eta bultzatzea

Euskadik jaso du:

- **24,1 milioi euro Espainiako helmuga turistikoak benetako berrikuntza-polo lehiakorrago eta etorkizuneko krisien aurrean erresistenteago bihurtzeko**
- 2.480,9 milioi euro zorpetzerako
- 5,8 milioi euro, merkataritzaren sektoreari laguntzeko 9 proiektutarako, eraldaketa digitala eta jasangarria bultzatuz eta herri txiki eta ertainetan eta alde turistikoetan sarea indartuz.
- 19 ENISA mailegu, 4,2 milioi eurokoak, gazte, ETE, ekintzaile digital eta oinarri teknologikoko enpresei finantza-laguntza emateko, beren lehiakortasuna hobetzeko eta enplegua sortzen laguntzeko.
- 5,5 milioi euroko inbertsioa ‘Autonomia-erkidegoen eraldaketa digitala eta modernizazioa’ delako horretan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 11. osagaiaren barruan.
- 113,0 milioi euro Tubos Reunidos enpresarako eta 25,0 milioi euro Rugui enpresarako, SEPIk emana likidezia-arazoak dituzten enpresa bideragarrientzat.
- **12 milioi euro Elmubas Ibérica enpresari, industria-inbertsio produktiboari laguntzeko funtsetik.**

## Kohesio soziala

- **29.259 pertsonek jaso dute gutxieneko bizi-sarrera, 21.945 helduk eta 7.314 adingabek**
- **567.978 pentsiodunek jaso dute, azaroaren 30ean, pentsioen balioa KPIaren arabera handitzea 2021ean**
- **7.735 pertsonek jaso dute, azaroaren 30ean, pentsioetan genero-arrakala murrizteko osagarria**

- **40,0 milioi euro bideratu dira Euskadiko herritarrentzako enplegu-politika aktiboetara**
- **84.843 pertsonek 1.795,6 tona elikagai jaso dituzte guztira, 1,5 milioi euroko balioarekin, Pertsona Behartsuenei Elikadura-Laguntza emateko 2021eko Programaren bi faseetan**
- **61.000 langile publikok baino gehiagok % 0,9ko ordainsari-igoera izan dute**
- **32,0 milioi euro "berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko" Europako Funtsetatik, 2021ean, gizarte-proiektu eta zerbitzuetarako**
- **1,1 milioi euro bideratu dira "Espainiak babestu egiten zaitu" Plana garatzera, sexu-indarkeriaren biktimentzako 24 orduko Arreta Integraleko Zentroak sortzeko.**
- Ikasle ahulentzako konektibitatea duten 8.366 ekipo informatiko banatu dira Hezi Digitalean programaren bidez
- **35,2 milioi euro hezkuntza-sistema digitalizatzeko**
- **3,1 milioi euro bideratu dira Europako funtsetatik datorren PROA+ hezkuntza-errefortzuko programara**
- **0,8 milioi euro inbertitu dira MRR funtsetatik euskal herritarrei zuzendutako laguntza eta orientazio unitateetarako**
- **Ia 13,0 milioi euro bideratu dira Lanbide Heziketa Modernizatzeko Plana bultzatzeko, "Lanbide Heziketa bultzatzeko plan estrategikoa" izeneko Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 20. Gaiaren esparruan.**
- **3,3 milioi euro biztanleria aktiboa kualifikatzeko eta birkualifikatzeko despopulazioaren, pertsonen zaintzaren eta sektore estrategikoen jardun-eremuetan**
- **4,7 milioi bideratu dira 0-3 urte bitarteko hezkuntza sustatzeko lurralde-lankidetzako programara, 506 plaza publiko eta doakoak sortzeko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 21. Gaiaren esparruan.**
- **16,2 milioi euro bideratu dira euskal unibertsitatera Espainiako unibertsitate-sistema birkualifikatzeko, eta 2,7 milioi euro Espainiako unibertsitate-sistema modernizatzeko eta digitalizatzeko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.**
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 2. osagaiaren esparruan, Euskadin honako hauek banatu dira:
  - 55,9 milioi euro, “Bizitegi-inguruneetan ekonomia eta gizartea berreskuratzeko birgaitze programa” garatzeko

- 22,5 milioi euro "Eraikin publikoak birgaitzeko sustapen-programa (Pirep)" garatzeko

— 2021eko abenduaren 23rako 51.376 pertsonak jaso zuten gizarte-bonu termikoa. 2021erako aurrekontua 9.5 milioi eurokoa izan da.

— **2,3 milioi** euro eman dira "**Lurralde-proiektu berriak, adinekoei, ezgaitasunen bat dutenei edota mendekotasun-egoeran dauden pertsonei etxebizitzarako eskuragarritasun unibertsala bermatzeko"** inbertsio-jarduerak garatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan

— **32,2 milioi** euro banatu dira euskal herritarrentzako **zainketa-politiken** proiektuak finantzatzeko, hiru ildotan: iraupen luzeko zainketak, gizarte-zerbitzuak eta irisgarritasun unibertsala

— **9,5 milioi** euro entregatu dira **Justiziako 2030eko "0 Proiektua"** egiteko, inmediazio digitala, lanpostu deslokalizatua, herritarrentzako arretarako aurretiko hitzordua eta zibersegurtasuneko jarduerak eta Justiziako Zerbitzu Publikoa eraldatzeko lehentasunezkotzat jotzen diren inbertsio-proiektuak garatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziako Planaren esparruan

— **85 pertsona** deribatu dira Euskadira **Antigona Operazioaren** barruan

— **1,9 milioi** euro eman dira jarduerak garatzeko **OSNren eraginkortasuna eta jasangarritasuna farmazia-prestazioaren esparruan hobetzeko** programaren barruan, eta **1,3 milioi** euro prestakuntzako osasun-kohesioko politikak garatzeko programarako, **sendagaien erabilera arrazionala bultzatzeko**

— **NPB**ren esparruan:

- **7.778 pertsona** izan dira **NPBren kudeaketa elektronikoa sinplifikatzeko** proiektuaren onuradunak
- **61 pertsona** baliatu dira 2020ko kanpainako oinarrizko ordainketa-eskubideez; horrek esan nahi du autonomia-erkidegoak **112.256 euro** banatu dizkiela nekazaritza-jarduerari ekiten dioten nekazariei

— Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa inauguratu da Gasteizen

## Lurralde-kohesioa eta azpiegituren garapena

— 28,8 milioi euro erabili dira Bilboko Portuko Agintaritzaren Bilboko Portuko AZ-1 kaia luzatzeko eraikuntza-proiektua gauzatzeko

— **UNICO-Banda Ancha Programako 3,5 milioi euro** eman zaizkio Euskadiri, **180 Udalerriri** mesede egiten dien Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan.

— **20,3** milioi euro 2021-2023 aldirako, Euskadin **digitalizazio eta konektagarritasun zenbait proiektu** garatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan

— **6,6 milioi** euro, **bidaiarien eta salgaien errepideko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen** eta garraio osagarri pribatua egiten duten enpresen **garraio flotak aldatzeko**, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan

— Eskumen berriak transferitu zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoari arlo hauetan: espetxeen kudeaketa, errepideko garraioa, argitalpen seriatuak identifikatzeko nazioarteko kodeak ematea (ISSN) eta Ondarroako Portuko Itsas Barrutiko eraikin zaharra

— Segurtasun Batzordea egin da Barne Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Polizia Nazionalaren, Guardia Zibilaren eta Ertzaintzaren arteko akordioak berritzeko

— Bilbon Aduana Zaharra deritzon eraikina inauguratu da

— Trenbide inbertsioak egin dira eta egiten ari dira:

- 63,8 milioi euro abiadura handiko trazatuaren eraikuntzan
- 7,0 milioi euro inbertitu dira geltokietan egindako jardueretan, hala nola, nasen arteko pasabideen babespena, aldiriko lineen hobekuntza eta terminal intermodaletarako sarbideen hobekuntza
- 27,6 milioi euro trena lurperatzeko Bilboko Zorrotza auzoan
- 29,7 milioi trenbide-mantentze lanetan
- 59,0 milioi euro Astigarraga eta Irun artean zabalera estandarra jartzeko lanak egiteko. Lan honek, gutxi gora behera 34 hilabeteko iraupena izango duenak, ahalbidetuko du Vitoria/Gasteiz-Bilbao-San Sebastián/Donostia-Frantziako muga Abiadura Handiko linea berriari jarraitutasuna ematea.
- 22ko AOetan partida bat aurreikusi da Estatuari EAEan dagozkion azpiegiturekin jarraitzeko, bereziki abiadura handiko trenarekin.
- 36 milioi euro eman dira, Jundizko terminala eraldatzeko.

— Aireportuetako azpiegituretan:

- 12,0 milioi euro Loiuko aireportuan langileentzako eraikin berri bat egiteko

- •4,0 milioi euro Gasteizko aireportuko hainbat obratarako. Bereziki, terminalaren birmoldaketa, berari esker, bidaiarientzako espazioa eta kontrol-eremuak handitu ahal izan baitira, eta "handling" konpainietako ekipoak aparkatzeko aldean egindako obrak

## Trantsizio ekologikoa, ingurumenaren babesa eta berrikuntzari laguntza

Euskadik jaso du:

- 121,6 milioi euro energia eraginkotasuneko jarduetarako industria sektorean, eta etxebizitza-eraikinak erreformatzeko
- 2021eko lehen seihilekoan 37,2 milioi eman ziren autokontsumoari eta biltegiratzeari lotutako zenbait pizgarri-programa gauzatzeko, energia-iturri berriztagarriekin, eta etxebizitza-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeko.
- PRTR funtsetako **8,3 milioi** euro erabili dira Euskadin **biodibertsitatean, uran eta ingurumenean** inbertsioak egiteko
- **52,4 milioi** euro **Industria Garapen Teknologiko Zentroaren (CDTI)** I+G+B enpresa-proiektuetarako laguntzetan, **106 proiektu finantzatzeko**
- **40,6 milioi** euro Estatuko Ikerketa Agentziaren (AEI) laguntzetan, ezagutza zientifikoa eta kalitateko ikerketa eta aurrerapen nabarmena sortzea sustatzeko
- **7,7 milioi euro, Carlos III Osasun Institutuaren (ISCIII) 2021eko Osasunerako Ekintza Estrategikoaren** 51 proiektutarako diru-laguntzetan
- **16,6 milioi** euro Euskadirako eta INGESArako, **goi-mailako teknologiako ekipoak** erosteko, Osasun Sistema Nazionalaren Goi Mailako Teknologiako Ekipoetan Inbertitzeko Planean (INVEAT Plana) aurreikusita baitago
- **18,7 milioi** euro urteko lehen seihilekoan **MOVES III Planetik,** mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programak gauzatzeko
- **2,4 milioi** euro tokiko proiektuetan inbertitzeko, **erronka demografikoa duten udalerrietako energia garbiko proiektu berezietarako** laguntzen Planaren barruan **(DUS 5000)**
- **1,6 milioi** euro eman dira **PREE 5.000 programatik,** eraikuntzaren jasangarritasuna bultzatzeko Euskadiko 5.000 biztanletik beherako udalerrietan eta guneetan
- **44,3 milioi** euro eman zaizkio Euskadiri **metropoli-mugikortasuna digitalizatu eta deskarbonizatzeko.** Hori, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 1. eta 6. osagaiei dagokie

— Euskadik Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 4. eta 5. osagaien kargurako kredituen lurralde-banaketatik, honako hau jaso du:

- 6,9 milioi euro lurreko eta itsasoko biodibertsitatea zaintzeko, ekosistemak eta azpiegitura berdea lehengoratzeko eta basoak modu iraunkorrean kudeatzeko
- 0,8 milioi euro Espainiako Biosferaren Erreserbetarako
- 4,1 milioi euro Udalerri txiki eta ertainetako sareen hornidura hobetzeko eta galerak murrizteko Planerako. Plan horrek, 8.155 biztanle inguruAri mesede egin die

— 308.524 euro banatu dira, baso eta nekazaritza ekosistemetan klima-aldaketara egokitzea sustatzeko eta laguntzeko, PIMA Ekosistemen bidez

— 13,7 milioi euro erabili dira hondakinen araudia, Ekonomia Zirkularreko Programa eta Ingurumena Sustatzeko Plana (PIMA Hondakinak) ezartzeko laguntzetarako.

— 0,8 milioi euro inbertitu dira 5.000 biztanletik beherako aglomerazioen saneamendu eta arazketa planean.

— 352.810euro erabili dira línea elektrikoak hobeto jartzeko, hegaztiei kalterik ez egiteko.

— 5,0 milioi euro jarri dira MUBIL mugikortasun zentroan (jarduera, zientzia eta ezagutza adimentsu eta jasangarria garatzeko gunea).

— Jarduketa Protokoloa sinatu da, Garoñako Bidezko Trantsizio Hitzarmena egiteko.

— Handitu egin da "El Cachucho" Itsas Eremu Babestua eta Kontserbazio Eremu Berezia, natur aberastasun handiena duen itsas eremuetako bat. Zehazki, hasierako eremua 26.714 hektaretan handitu da, guztira 261.664 hektarea babestu utziz, eta alde horretako erabileren eta jardueren araudia eguneratu da.

— **1,5 milioi** euro erabili dira **nekazaritza, elikagai eta arrantza sektorearen ingurumena eraldatzeko eta digitalizatzeko** proiektuetarako, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 3. osagaiaren barruan, eta estatuak ekarpen gehigarri bat egin du landa-garapeneko programa autonomikoak kofinantzatzeko.

— Euskadik, urteko lehen seihilekoan, honako hauek jaso zituen Europako Funtsetatik:

- **25,2 milioi** euro **FEADER trantsizio** funtsetatik

- **7,5 milioi** euro **FEADER EURI** funtsetatik
- **54,4 milioi** euro **FEAGA** funtsetatik

— 4 milioi euro banatu dira 2022 eta 2023 urteetako mahastizaintzako eta ardogintzako hainbat programen artean banatzeko. Guzti horiek Espainiako Mahastizaintza eta Ardogintza Sektoreari Laguntzeko Programan jasota daude (PASVE).

## Kultura sustatzea eta ondarea babestea

— Euskadiri **8,1 milioi** euro eman zaizkio Kulturari esleitutako Europako funtsetatik, 2021-2023 aldian.

— Kultura-sektorean 9.30 milioi euroko diru-laguntzak eman dira, honako hauetarako: ikus-entzunezko arteak (5.8 milioi euro), musika eta antzerkiko arte eszenikoak (2.1 milioi euro), arte ederrak (1.0 milioi euro), kultura industriak, liburua eta irakurketaren sustapena.

— 2021ean zehar **0,7 milioi euro** eman zaizkio Euskadiri **kirol-sektorea dinamizatu, berregituratu eta modernizatzeko** berrikuntzak eta inbertsioak egiteko.

— CSDk saskibaloiko eta eskubaloiko klubei laguntzetan emandako 1,3 milioi euro, Covid dela eta izandako galerengatik.

— 17.394 euro eman dira Mendieta Ontziola kontserbatu eta eraberritzeko.

— **5,5 milioi** euro erabili dira Euskadiko **Santiago Bidearen** ondare historikoa birgaitzeko.

— **Donostiako San Telmo museoan "Bidaia Luzeena" erakusketa ikusgai egon da.** Erakusketa, Magallaes-Elkanok duela 500 urte lurrerako lehen ingurabidean egindako balentria kontatzen duena, Espainiako Kultur Ekintzak ekoitzi du .

— 0,8 milioi euro diruz laguntzeko Operaren Lagunen Bilboko Elkartearen denboraldia

— Mundu osoko Cervantes Institutuko ikastetxeetako zuzendarien bileraDonostian. Etxepare institutuarekiko lankidetza indartzea.

GOBIERNO
DE ESPAÑA